

BEHIN BETIKO ERABAKIA, 2024ko MAIATZAREN 6koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, SICUE PROGRAMAREN 2024/2025 IKASTURTERAKO DEIALDIKO PLAZEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA ARGITARATZEKOA.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen 2024ko urtarrilaren 18ko Erabakiaren bidez, Espainiako Unibertsitateen arteko Trukerako SICUE programaren 2024/2025 ikasturterako deialdia argitaratu zen.

Deialdian 2024ko martxoaren 4ra arteko epea ezarri zen eskariak aurkezteko.

Epea amaituta, plazak esleitu ziren deialdian zehaztutako irizpideen arabera, eta aukeratutako ikasleen behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, apirilaren 5eko behin-behineko erabakiaren eranskinean.

Legean ezarritako epea amaituta eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, orain erabaki hau ematea dagokigu.

Horregatik guztiagatik,

Honako hau ERABAKI DUT

LEHENENGOA. - Plazak behi betiko esleitzea, argitaratuta dauden irizpideen arabera, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleei. Ikus I. eranskina: plaza eskuratu duten ikasleak (baldintzak onarturik).

BIGARRENA. - Deialdian parte hartzeko baldintzak bete arren, plazarik eskuratu ez duten ikasleen behin betiko zerrenda egitea, merezimenduen araberrako hurrenkeran, ukorik egongo balitz, plaza eskura dezaten. Ikus II. eranskina: plazarik eskuratu ez duten ikasleak.

HIRUGARRENA. - Baztertzea deialdiko baldintzak edo deialdian parte hartzen duten unibertsitateek ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak. Baztertutakoen zerrendak III. eta IV. eranskinetan daude (III. eranskina: deialdiko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak; IV. eranskina: unibertsitateen eskakizunak betetzen ez dituzten ikasleak).

LAUGARRENA. - Baztertutako eskariak ez onartzeko arrazoi zehatzen taula argitaratzea. Ikus V. eranskina: eskariak baztertzeko arrazoiak.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
HARREMANEN
BULEGOA
OFICINA DE
RELACIONES
INTERNACIONALES

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA
E INTERNACIONALIZACIÓN

BOSGARRENA. - ERABAKIAREN AURKA EGITEKO ERAK

Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta bere kontra gorako errekurtsioa aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsioen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horrek ezertan eragotzi gabe beste edozein errekurtsio jartzea.

Gorako errekurtsioa jarri denetik hiru hilabete igaro badira unibertsitateak erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioa, 2024ko maiatzaren 6a

Sin./Fdo. M. Juncal Gutiérrez Mangado
EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E
INTERNACIONALIZACIÓN